

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

HERRITARREN PARTAIDETZAREN, GARDENTASUNAREN ETA GIZARTE ETXEEN SAILA

Herritarren Partaidetza

Udalaren partaidetza-prozesuetarako jarraibide eta irizpideak onesteko dekretua

Tokiko Gobernu Batzarraren 2020ko urtarrilaren 31ko bilkuran onetsi zuen Gasteizko Udalak Herritarren Partaidetzaren Udal Plana (2020-2023), Partaidetzaren eta Udal-administrazioaren Batzordearen barruan agintaldiaren hasieran eraturako Partaidetza-lantaldean udal talde politiko guztiek adostua.

Plan horretan xedatutako ekintzen artean, udal partaidetza-prozesuak egiteko gida izango den eskuliburu bat prestatzea dago.

Ez da dekretua honen helburua Udalaren partaidetza-prozesuak arautzea. Aitzitik, irizpide komun batzuk, jarraibide batzuk eta, azken batean, gida bat edukitzea du xede, Udalaren edozein partaidetza-prozesu diseinatu, garatu, ebaluatu eta jarraitzeko esparru gisa baliatzerik izan dadin, zein, aldi berean, nahitaez bete beharrekoa izango baita udal-antolakuntzaren barruan.

Horrela, kontuan hartuta prozesu bakoitza bakarra eta desberdina dela, eta modu egokian egin ahal izateko malgutasun metodologikoa behar duela, dokumentu honen helburua ez da partaidetza-prozesuak burokratizatzea edo mugatzea, oinarriko elementuak eta irizpideak ezartzea baizik, udal partaidetza-prozesuak modu egokian gauzatzeko.

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen IV. kapituluko hirugarren atalean —74. artikulutik 77.era— daude araututa partaidetza-prozesuak. Bertan dago definituta deliberazio-prozesuen kontzeptua, partaidetza benetan gauzatzeko informazioa, erabakiak, ekimena eta garapena, baita horien eraginkortasuna ere.

4.2 artikulua arabera, udalen eta gainerako toki-erakundeen zuzendaritza politikoa eta gobernu-ekintza printzipio hauen arabera garatuko da, besteak beste: autoantolaketa; herritarrek tokiko politika publikoak formulatu, egikaritu eta ebaluatzeko prozesuetan parte hartzea, eta tokiko ekintza publikoaren efikazia eta efizientzia, halako moldez non ekintza hori bideratu dadin herritarren beharrezan antzeman, artatu eta asebetetzera, erakunde horien politikak eta zerbitzuak planifikatzeko, kudeatzeko eta ebaluatzeko eta etengabe hobetzeko prozesuak era ordenatuan egitea bermatuko duten tresnen bitartez. Horri 10.1 artikulua gehitzen dio udalerriek, Tokiko Autonomiaren Europako Gutunean ezarritakoa betez, haien kabuz ezarriko dituztela haien eskumenak gauzatzeko behar dituzten antolaketa eta egitura administratiboak eta instrumentalak, gobernu onaren eta administrazio onaren printzipioak gauzatzeko.

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legean lehen xedapen gehigarriak honela definitzen ditu Alkatezaren dekretuak eta jarraibideak: "Alkateak bere eskumenen esparruan emandako xedapen orokorrak, antolaketa izaerakoak zein gizarte-antolamendukoak. Azken kasu horretan, udalbatzak onartutako erregelamenduak eta ordenantzak betearazteko".

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 124. artikulua, bestalde, alkateari esleitzen dizkio funtzio hauek: b) Udalerriko politika, gobernua eta administrazioa zuzentzea; c) Udal-gobernuaren ekintzaren jokabide nagusiak ezartzea eta ekintza horrek jarraituko duela ziurtatzea; g) Bandoak, dekretuak eta jarraibideak ematea; i) Udal-administrazioaren

zerbitzura dauden langileen goi-zuzendaritza betetzea; eta k) Udal-administrazio betearazlearen antolakuntza eta egitura ezartzea.

Horregatik, arau horiek ikusita,

XEDATU DUT

Udalaren partaidetza-prozesuak behar bezala gauzatzeko oinarritzko elementu eta gida gisa baliatuko diren jarraibide eta irizpideak onestea, udal-sail guztiek nahitaez bete beharreko instrukzio orokor gisa.

Hala agintzen eta sinatzen du Gasteizko Udaleko alkatea.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko abenduaren 20an

Alkatea

GORKA URTARAN AGUIRRE

UDALAREN PARTAIDETZA-PROZESUETARAKO JARRAIBIDE ETA IRIZPIDEAK

1. Justifikazioa

2020ko urtarrilaren 31ko Gobernu Batzarrean onetsi zuen Gasteizko Udalak Herritarren Partaidetzaren Udal Plana (2020-2023), Partaidetzaren eta Udal-administrazioaren Batzordearen barruan agintaldiaren hasieran eraturako Partaidetza-lantaldean udal talde politiko guztiek adostua.

Plan horretan xedatutako ekintzen artean, udal partaidetza-prozesuak egiteko eskuliburu bat prestatzea dago. Eta horregatik aurkeztu da dokumentu hau.

2. Xedea

Udalaren edozein partaidetza-prozesu diseinatu, garatu, ebaluatu nahiz jarraipena egitean nahitaez bete beharreko irizpide komun batzuk edukitzea da dokumentu honen xedea.

Kontuan hartuta prozesu bakoitza bakarra eta desberdina dela, eta modu egokian egin ahal izateko malgutasun metodologikoa behar duela, dokumentu honen helburua ez da partaidetza-prozesuak burokratizatzea edo mugatzea, oinarritzko elementuak eta irizpideak ezartzea baizik, udal partaidetza-prozesuak modu egokian gauzatzeko.

3. Partaidetza-prozesuaren kontzeptua

Honako hau ulertzen da "partaidetza-prozesu" gisa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legean eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legean adierazitakoa gorabehera: hainbat eragile, kolektibo edo pertsonaren partaidetzarekin lotutako momentu eta ekintza parte-hartzaileen batura — lantegiak, talde-dinamikak, erakusketa interaktiboak, foro eta lantalde presentzialak edo birtualak, ikuskizun sortzaileak... —, erabaki nahi den gai edo arazo baten inguruan ikuspuntu desberdinak emateko.

Horrela, honako honi bakarrik deituko diogu partaidetza-prozesu: Udalean erabakiak hartzen dituen organoren batek —alkatea, gobernu-batzarra edo udalbatza— oraindik administrazio-erabaki irmorik hartu gabe gaiak planteatzen dituen prozesua, erabakia hartzean eragin zuzena izan dezan. Betiere, 10. puntuan adierazitako partaidetza-prozesuaren faseak betetzen direlarik.

Printzipio hauetan oinarrituko dira partaidetza-prozesuak: gardentasuna, publikotasuna, argitasuna, informazioa eskuratzeko aukera, erakunde-neutraltasuna, interes kolektiboaren nagusitasuna, dibertsitatea, debate publikoa, berdintasuna eta diskriminaziorik eza, inklusio soziala, eraginkortasuna, datu pertsonalen babesa eta kontuak ematea.

Printzipio horiek nahitaezkoak dira Udalarentzat, eta eskubide eta bermeak partaidetza-prozesuetan parte hartzeko legitimazioa dutenentzat.

4. Udalaren partaidetza-prozesu baten helburuak eta mugak

Prozesuaren helburuak hauetakoren bat edo gehiago izan daitezke:

- Egoera jakin baten diagnostikoa egitea.
- Gai jakin bati buruzko jarduketa publikoa antolatzea.
- Udal-jarduketa jakin bati buruzko ideia sortzaileak eta berritzaileak bilatzea.
- Egoera jakin batean esku hartzeko proposamen zehatzak iradokitzea edo baloratzea.

Partaidetza-prozesu bat abian jartzea onetsi ondoren, ezin izango da erabakirik hartu prozesuaren xede den gaiari buruz, hura guztiz bukatu arte.

Garrantzitsua da prozesuaren mugak hasiera-hasieratik argi edukitzea, hau da, zer geratzen den erabakitzeko eremutik kanpo argi edukitzea.

Partaidetza-prozesua kasuan kasuko administrazio-prozeduran txertatu beharko da, behar bezala gauzatzeko behar den denbora egokiarekin.

Egindako partaidetza-prozesu bakoitzak azken itzulketa bat izango du gobernu-taldearen edo sustatzailearen aldetik, eta argi eta garbi adierazi beharko da partaidetza-prozesuko zein ondorio izango diren kontuan eta zein ez, eta zergatik. Horri esker, partaidetza-prozesuaren eragina nabarmendu ahal izango da, Udaleko gobernu-organoen erabakitzeko gaitasunari une bakar batean ere kalterik egin gabe.

Ezin izango da partaidetza-prozesurik deitu baldin eta prozesu horiek mugatu edo murriztu egiten badituzte Espainiako Konstituzioaren I. tituluko II. kapituluko lehen ataleko funtsezko eskubide eta askatasunak, edo Estatutuko I. tituluko I, II eta III. kapituluetako eskubide eta betebeharrak.

5. Udal partaidetza-prozesuak sustatzea

Honako hauek susta dezakete udal partaidetza-prozesu bat:

- Udaleko edozein sail edo enpresak.
- Herritarrek parte hartzeko udal-organoeak.
- Udalerriko entitateak.
- Herritar taldeak.
- Udaleko talde politikoeak.

Horretarako, partaidetza-prozesua eskatzeko inprimaki bat bete eta Herritarren Partaidetza Zerbitzuari bidali beharko zaio —Udalaren webgunean egongo da eskuragarri inprimakia—.

6. Udalaren partaidetza-prozesua onestea

Eztabaidatuko den gaiaren gaineko eskumena duen Udaleko administrazio-organuari dagokio partaidetza-prozesua onestea.

Proposatutako partaidetza-prozesua ukatuz gero, behar bezala arrazoitu beharko da, aurreko puntuetan azaldutako mugak oinarritzat hartuta.

7. Partaidetza-prozesuaren talde sustatzailea

Partaidetza-prozesua sustatzeko talde bat sortuko da, partaidetza-prozesua proposatu duten saileko, partaidetza-organoko edo kolektiboko pertsonekin. Bertan izango dira Herritarren Partaidetza Zerbitzuko ordezkariak ere, prozesuaren garapenari buruzko aholkuak emateko.

Talde sustatzaile horrek zeregin hauek izango ditu:

- a) Parte hartuko duten pertsonen profilak identifikatu eta proposatzea.
- b) Pertsonak eraginkortasunez parte hartzeko metodologiarik egokienak zehazten laguntzea.
- c) Prozesuaren jarraipenaz eta ebaluazioaz arduratzea.

8. Partaidetza-prozesuan parte hartzera deituak

Prozesu parte-hartzailea onestean, prozesurako gutxienez deitu behar diren pertsonen profila adierazi beharko da: pertsonala, teknikoa, politikoa, profesionala, asoziatiboa edo beste edozein motatakoa.

Prozesua onesteko orduan ezin badira zehaztu deitu behar diren pertsonen profilak, beharrezko azterketak egin beharko dira, eragileen mapa jasotzeko eta horiek identifikatu ahal izateko, eztabaidak hasi aurretik.

Parte hartzera deitzen profilek ahalik eta pluraltasun eta aniztasunik handiena izan beharko dute, eztabaidatuko den gaiaren ezaugarrien arabera, eta benetako genero-berdintasuna barne hartu behar dute.

Eraginkorra eta parte-hartzailea izan dadin, kalean eragiteko / erakartzeko moduak txertatu beharko ditu, eta pertsonen elkarreragin irekia eta interaktiboa sortu.

Horrez gain, beharrezkoak diren laguntza-bitartekoak zabaldu beharko dira, beren baldintza indibidualak edo sozialak direla-eta —hala nola adina, desgaitasuna, jatorria edo sexua— zailtasun bereziak dituzten pertsonen parte hartzen laguntzeko, betiere eragindako lurralde-eremuaren gizarte- eta biztanleria-osaera kontuan hartuta. Prozesua gauzatzean, pertsona horien presentzia eraginkorra errazteko tresna egokiak hartu beharko ditu barne, bereziki haurren eta nerabeen kasuan. Era berean, desgaitasuna dutenen eta zaintza-lanez arduratzen direnen irisgarritasuna bermatu beharko da.

Partaidetza-prozesuaren talde sustatzaileak bereziki zaindu beharko du parte-hartzaileen ahalik eta inklusiorik eta dibertsitate handiena ahalbidetzeko tresnak hedatzen direla.

Kolektibo espezifiko bideratutako partaidetza-prozesuaren kasuan, horiek aukeratzean bereziki zaindu beharko da berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioak aplikatzen direla, prozesuaren xedearen arabera.

Prozesuetan pertsona juridikoek, herritar-elkarteek edo norbanakoek parte har dezakete. Horiez gain, beren ezagutza tekniko espezifikoengatik prozesuaren xedea hobeto ulertzen lagun dezaketen pertsonen parte har dezakete.

9. Partaidetza-prozesuaren metodologia

Ez dago partaidetza-prozesu guztietarako metodologia estandarrik. Prozesu bakoitzak berea eduki beharko du, aztergaiaren eta horren inguruan zehaztutako helburu eragileen arabera.

Nolanahi ere, partaidetza-prozesu guztietan irekiera-zikloak eta itxiera-zikloak egongo dira. Irekiera-zikloetan, era guztietako diskurtsoak eta jarrerak bilatu beharko dira, eta, horren ondorioz, aztergaiaren eraginpean dauden edota egon daitezkeen talde eta sektore sozial desberdinetara ireki. Itxiera-zikloetan, berriz, hauek izango dira helburuak: adostasunak eratzea, negoziatzea (beharrezkoa bada) eta, eztabaidaren arabera, abian jarri beharrekoa garatzeko moduko antolaerak berriro zehaztu eta gauztea.

Irekiera- eta itxiera-zikloei dagokienez, hobe da erakunde parte-hartzaileekin faseak eta lan-saioak zehaztea, prozesuaren helburuak zein diren eta zer testuingurutan garatuko diren kontuan hartuta. Edonola ere, partaidetza-prozesuetan ematen diren oinarritzko faseen eskema orokorra iradokitzen da hurrengo puntuan.

Online ere egin daiteke partaidetza-prozesuen eztabaida, informazioaren eta komunikazioaren teknologien bidez. Edonola ere, parte hartu behar duten pertsona guztiek erabili beharreko tresna edo tresnak eskura dituztela eta ondo ezagutzen dituztela ziurtatu beharko da, eta partaidetza-prozesua garatuko den “eremu birtuala” planteatzen den lan-dinamikarako egokia dela.

Egindako aurrez aurreko saioen nahiz saio birtualen aktak webgunean argitaratu beharko dira, eta informazioaren gardentasuna, trazabilitatea eta hedapena bermatze aldera. Ekarpenean izan duten ibilbidea jarraitzeko aukera eman beharko du horrek, baita ekarpenean azken erabakian izan duten eragina ere.

10. Partaidetza-prozesuaren faseak

Partaidetza-prozesu guztiek fase hauek izan behar dituzte:

a) Informazio-fasea: fase horren bidez, partaidetza zer gai edo proiekturen inguruan eskatu nahi den jakinarazten zaie herritar interesdun guztiei, horretarako egokitzat jotzen diren bitartekoak erabiliz. Fase horretan oso garrantzitsua da prozesuaren faseei eta ezaugarriei buruzko informazioa ematea, baita eztabaidatu beharreko gaiari buruzko dokumentazioa ere.

b) Eztabaida-fasea: fase horren bidez, metodologia egokiak erabiliz eta eztabaidaren baldintzak eragindako pertsonen eta kolektiboaren premia espezifikotara egokituz, elkarrizketa eta argudioen kontrastea sustatzen dira, eta pertsonak egindako ekarpenak jasotzen. Salbuespenak salbuespen, fase honek 120 eguneko iraupena izango du gehienez.

c) Itzulera-fasea: fase horretan, prozesuaren emaitzak helarazten zaizkie parte-hartzaileei eta herritarrei. Bertan, prozesuaren sintesia egiten da eta eztabaiden ondorio nagusiak biltzen dira. Ondorio horiek arduradun politikoei helarazten zaizkie, eta horiek emaitzak nola aplikatuko dituzten jakinarazi behar dute. Era berean, egikaritze-egutegia azaldu behar da, baita proposamena nola eta zer baliabiderekina gauzatuko den ere.

d) Jarraipenerako, ebaluaziorako eta kontuak emateko fasea. Fase honi esker errazagoa da honako hauen jarraipena egitea: prozesuko emaitzen garapena, adierazleen neurketaren emaitzak eta hartutako konpromisoen betetze-maila.

Prozesuko fase guztietan, hizkuntza ez-sexistarik egokiena erabili behar da, ulergarria eta dibertsitate funtzionala duten pertsonen komunikazio-kodeak barne hartuko dituen, eta, ahal izanez gero, baita gure udalerrian elkarrekin bizi diren kulturen komunikazio-kodeak ere. Ahal den neurrian, irakurketa errazeko bertsio bat egingo da.

11. Partaidetza-prozesuaren ebaluazioa

Jarraipena eta ebaluazioa ezinbestekoak dira edozein partaidetza-prozesutan. Hala ere, ebaluazioa ez da prozesua balioztatzen edo balioztatzen ez duen une gorena izango, hobetzeko aukera etengabea baizik, hau da, etengabeko ebaluazio moduan.

Izan ere, ebaluazioa ez da bukaeran hasten, hasieran bertan baizik, prozesuaren helburuak eta xedea zehazten direnean. Une horretan, zehaztutako helburuak ebaluatzeko moduko parametroak eta adierazleak ezarri beharko ditugu.

Ebaluazioa etengabea denez, informazioa biltzeko eta partaidetza-eremuak aztertzeko eta eztabaidatzeko bideek zabalik egon beharko dute beti, prozesua emaitzen arabera berrorientatu ahal izateko.

Hau ebaluatu beharko da:

- Emaitza espezifikoak: proposamenak, helburuen lorpena, konpromisoak...
- Prozesua bera: partaidetza-ekintzak, bertaratuen kopurua, proposamen-kopurua...
- Eta, horrez gain, beste gai ukiezinago batzuk: pertzepzioak, eragile parte-hartzaileen diskurtsoak, trebakuntzak, harremanen sorrera...

Inolako zalantzarik gabe, prozesua bultzatzen duen taldeak sustatu behar ditu prozesuaren jarraipena eta ebaluazioa. Oso garrantzitsua da ebaluazio kuantitatiboa egiteko ebaluazio-adi-erazleak izatea —emaitzak eta prozesua ebaluatzeak—, baita balorazio kualitatiboa egiteko ere, parte hartzen dutenen iritzia kontuan hartuta.

Gainera, gogoan izan behar da jarraipenaren eta ebaluazioaren helburuak prozesua eta etorkizuneko beste partaidetza-prozesu batzuk hobetzea izan behar duela. Hori dela eta, jakintza- eta ikaskuntza-iturria izango da ebaluazioa.

Agintaldi bakoitzaren bukaeran, partaidetza-prozesuek eragindako politikek edo zerbitzuek udal-antolamenduan eta herritarrengan izan duten eragina ebaluatuko da.

12. Partaidetza-prozesu bat izan duten udal-jarduketan jarraipena egitea

Partaidetza-prozesu bat izan duten udal-jarduketa guztiek jarraipen-sistema bat izan beharko dute, ahal izanez gero, Udalaren webgunearen bidez eta aldi behin eguneratuta. Gainera, datuak irekiak izango dira, eta gauzatutako ekintzen trazabilitatea eta gardentasuna bermatu beharko dira.

Prozesua bezain garrantzitsua da partaidetza-prozesuko alderdiek onartutako proposamenak ezartzea. Trazabilitateak erraza izan behar du, prozesuan parte hartu duten pertsonak eta kolektiboek nahiz herritarrek jarraitzeko modukoa, partaidetza-prozesuan adostutako proposamenen ezarpena zein fasetan dagoen jakin ahal izateko.